

Kalkulu politikoa eta turismo iraunkorra Urdaibain

Azken bi urteotan tinta asko gastatu da Urdaibaiko Guggenheimen bi proiektuen inguruan. Batzuk alde, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EAJ-k (GuBai plataforma barne); beste batzuek zalantzazko adierazpenak zabalduz –funtsean PSE-EE– eta bestelako zenbaitek, batez ere gizarte eragileen ikuspegitik, agerraldi kritikoak adieraziz, (Lan eta Bizi plataformak, sindikatuek, ekologistek, kultur taldeek, etab.).

Tinta asko, baina txipiroiarenak gutxitan balio izan du gairik argitzeko: EAJ-k PSE-EE-k eta PP-k euren eremura eraman dute, lehia politikorako edozein gai balitz bezala. Konbentzitura nago erabat, EAJ-k duela hiru urteko hauteskundearen emaitzak ikusita, Busturialdean galdutako eremu politikoa berreskuratzeakotan egin zuela proposamena : museoa aurrera badoa, meritua gurea izango da; eta, ostera, azkenean gauzatuko ez balitz, errua oztupoak jarri dituztenena litzateke (Patxi Lopez and Co.).

Ekologistok, berriz, debatea beste eremu batera eraman nahi dugu. Unescok Urdaibai Biosfera Erreserba izendatu zuenetik, -25 urte-, argi dugu "mamia" eskualdearen garapen ekonomiko eta sozialean dagoela. Hau da, Urdaibai biosfera laborategia izatea garapen iraunkorreko jarduerak eta proiektuak egiteko. Urdaibairen kontra hasieratik egon direnek ere, azkenean onartu egin behar izan dute helburu hori.

Hortik dator beren proposamenaren justifikazioa: artea eta natura uztartzea Urdaibaiko garapen iraunkorra lortzeko. Urteetan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta zenbait udalek boikotatu egin dute Urdaibaiko funtzionamendua eta pikutara bidali garapen iraunkorra bultzatzeko aukera eta inizatiba guztiak. Baina, bestalde, euren eskumenak erabili dituzte pinu eta eukaliptoaren landaketa laguntzeko, azpiegitura gogorrek proiektatu eta egiteko, eta espekulazioari babesa emateko.

Azken hilabeteotan, adierazpenetan eta propagandan, aldiz, Urdaibaiko Biosfera Erreserba positiboa dela aitortu dute. Badirudi natura defendatzeari errentagarritasuna ikusi diotela. Ondo da, baina sinesgarria al da?

Itzul gaitezen gakora: Urdaibaiko garapen iraunkorra eta interdependentzia: garapena ez da lortuko, naturaren babesarekin batera egiten ez bada eta, alderantziz ere, natura ezin izango da babestu -Urdaibai den hain espazio gizatartuan- aldi berean, garapen iraunkorreko esperientziarik egiten ez bada.

Horrek ez du esan nahi ezin litekeela museorik egin. Kontua da edozein jarduera ekonomiko eta soziala bultzatzean, kontuan izan behar dela lurraldeak duen "harrera-ahalmena". Ez da erraza ahalmen hori kalkulatzeko eta, gainera, aldatzen da jardueraren arabera. Baina, zenbat lagunek bisitatu dezakete eskualdea bere balioak kaltetu barik? Zein azpiegitura berri eskatuko luke bisitarien etortze horrek, eta non leudeke?

Erabakiak ezin dira hartu ondorio guztiak ondo baloratu eta ezagutu barik. Oinarrizko ezaugarri batzuk izan behar ditu: hasteko, bertoko baliabide naturaletan oinarritutako jarduerak lehenestea; jarraitzeko, orekatua izatea sektore bat besteen gainetik kokatu barik. Laburbilduz, tradizionalak eta orain arte iraunkorrak izan diren jarduerak balioestea eta, aldi berean, trakzioa eragin dezaketen jarduera berriak sustatzea.

Puzzle honetan pertsonak oso pieza garrantzitsuak gara. Norentzat eta zertarako garapen iraunkorra, ingurune horretan bizi eta kanpotik datozen lagunentzat ez bada? Garapeneko eredu tradizionalak, aldiz, jarduerak eta lurraldea zatitzen ditu. Ez ditu kontuan izaten jarduera edo proiektu batek izan ditzakeen eraginak, ekonomikoak ez badira (batez ere akzionista edo jabe gutxi batzuen poltsikoetan, jakina). Gainera, optimismo kapitalistaren eskutik, uste dute hazkunde ekonomikoa gertatuko dela azpiegiturak egiten badira. Beraz, Guggenheimen sukurtsala Urdaibain eraikiz gero, denok aberats. "Kasinoko ekonomia" kontzeptua hedatu da. Badirudi horrela gabiltzala Jose Luis Bilbao, ahaldun nagusiari, entzuten diogunean 100 miloi euro dituela Guggenheim 2 museoa egiteko (norena da diru hori, bestalde?).

Propagandatik haratago, badirudi Aldundiak sosik ez duela Guggenheim 2 egiteko. Gainera, proiektuari ez dio ezertan laguntzen Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak Sukarrietako Koloniei eman dien babesak.

Dena dela, uste dut inoizko unerik egokiena izan daitekeela Urdaibairako zein eredu sozioekonomiko nahi dugun eztabaidatzeko. Hain zuzen, Guggenheim Bi proiektuak piztu duen debatea aprobetxatzeko, turismoaren inguruko hausnarketa sinplea egitea gustatuko litzateke. Ekarpina ez da oso orijinala; beraz, nire iturriak aipatuko ditut: Gune Babestuetako Turismo Iraunkorrerako Europako Gutuna (2007an gaurkotua).

EUROPARC Federazioak egin du hitzarmen hori, Rio de Janeiroko Lurraren Gailurreko (1992) 21 Agendari eta Europako Batasunaren garapen iraunkorrerako ekintza komunitarioei buruzko seigarren programari jarraituz. Gutuna 2007an gaurkotu zuten eta, Europako beste erakunde publikoen artean, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatu zuten ere. Ikus dezagun gutunaren ezaugarri batzuk:

Gutunak garapen iraunkorra horrela ulertzen du: gaurko belaunaldien beharrak asetzen ditu, geroko belaunaldien beharrak asetzeko ahalmena arriskuan jarri barik. Garapen mota horrek ondokora behartzen ditu: geroko belaunaldientzat baliabideak babestea, garapen ekonomiko bideragarria eta bidezko gizarte garapena bermatzea.

Oinarrizko bi helburuok ditu gutunak:

Europako gune babestuen ezagutza eta laguntza bultzatzea. Espazio babestuen garapen iraunkorra eta turismoaren kudeaketa hobetzea, ingurumenaren, bertan bizi diren lagunen, enpresen eta bisitarien beharrak kontuan hartuz.

Tokiz tokiko estrategia aldarrikatzen du Gutunak, "turismo iraunkorra"ren aldekoa. Turismo-mota hori martxan jartzeak hainbat pauso exijitzen du: Herritarron parte hartzea eta jarduera turistikoen eta gainerako sektore ekonomikoen arteko elkarrekintza indartzea.

Alegia, turismoko strategiak eta plangintzak lehenetsi behar dituzte, turismoa bultzatzearen gaineratik jarriz: "bisitarien fluxuak, ez ditu ondareko baliabideak suntsitu behar".

Batetik, ingurumen hezkuntza eta ondarearen interpretazioa politika turistikoaren oinarria izan behar dira. Bestetik, Ibilgailu partikularren zirkulazioa murriztea lehentasuna izan behar da, eta, horrekin batera, bizikleta eta oinez mugitzea sustatu. Eta azkenik, turismoari lotuta izango diren eraikinak egiterakoan, lehendabizi eraikitakoa berreskuratzea hautatuko da, eraikin berriak egin baino lehen, betiere tradizio arkitektonikoak errespetatuz.

Jarrai genezake beste puntu asko zerrendatzen, baina gure asmoa ez da Turismo sailari plangintza egitea Urdaibain aplikatu dezan. Bai, ordea, azpimarratzea zelan Guggenheim 2 proiektuak talka egiten duen EUROPARC-ek egin duen turismo iraunkorrerako Gutunarekin (Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak izenpetuta). Batez ere hiru ideiekin geratzen gara: lehena, turismo iraunkorra bertako balioetan oinarritu behar dela eta balio naturalekin osagarria, arriskuan jarri barik; bigarrena, turismo masiboa kaltegarria dela beti eta, hirugarrena, turismoa ezin dela izan monolaborantza ekonomiko berria, gainerako jarduera ekonomikoekin osagarria izan behar dela.

Oso urrun gaude eredu horretatik, baina oraindik garaian norabide egokirantz joateko. Eta bidean ikusiko da zein museo eta zein azpiegitura diren beharrezkoak, inprobisaziotik arrazionaltasunera igaroz.

Alfonso Caño.

Gernikako Ekologi Lan-taldea

2010-06-08